

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2020

BILDUTA

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta Eneko Goia Laso, Donostiako Udaleko alkate-udalburua.

SE REÚNEN

El Sr. D. Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Eneko Goia Laso, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de San Sebastián.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia den aldetik, eta erakunde horren Estatutueta 7.2.g) artikulua ematen dion eskudantzia dela eta.

Bigarrenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 124.4 a) artikulua Udala ordezkatzeko ematen dion legezko ahalmena erabiliz.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko behar adinako lege gaitasuna eta horretarako

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 124.4 a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

HONAKO HAU AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- 2012ko urriaren 17an, Uraren Euskal Agentziak eta Donostiako Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten zubi bat egiteko proiektu bat idazteko, helburua izanik, Loiola-Loiolako Erriberak-Egia ingurunean, Urumea ibaiaren bi ertzak lotzea.

EXPONEN

PRIMERO.- Que el 17 de octubre de 2012 la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de San Sebastián suscribieron un convenio de colaboración para la redacción del proyecto de ejecución de un puente de conexión de las dos márgenes del río Urumea en el entorno de Loiola-Riberas de Loiola-Egia.

BIGARRENA.- Hitzarmen horretan, gainera, Uraren Euskal Agentziak hitzeman zuen berak ordainduko zuela egungo zubia eraisteko eta kentzeko eta zubi berria eraikitzeak obren kostua. Hori guztia kontuan hartuta obrak azterlan hidraulikoetan ezarritako irizpideekin bat egin behar direla, eta egungo zubia dagoen tokian kokatuko dela aurreikusita. Aldameneko bideekin behar bezala lotu eta elkartzeko obrak ere sartuko ziren, sinatzaileen aurrekontu posibilitateen arabera, horretarako beste hitzarmen bat sinatuz edo egindakoa handituz.

SEGUNDO.- Que dicho convenio contemplaba además el compromiso de la Agencia Vasca del Agua de abonar la cuantía equivalente al coste de demolición y retirada del puente actual y ejecución de las obras de construcción del nuevo puente de acuerdo con los criterios establecidos en los Estudios hidráulicos, en la hipótesis de que debiera situarse en el mismo emplazamiento que el actual, incluyendo su necesaria y correcta conexión y encuentro con el viario colindante, dentro de las disponibilidades presupuestarias de las firmantes, mediante la suscripción de un nuevo convenio o ampliación de aquel.

HIRUGARRENA.- "Urumea ibaiaren gainean Astiñene zubia gauzatzeko Proiektua" idatzita dagoenez, eta behar beste aurrekontu dutenez, bi aldeek beste hitzarmen bat formalizatzen dute, proiektuan sartutako behin betiko obrak finantzatzen eta kontratatzen elkarri laguntzeko.

Hori guztia honako klausula hauetan ezarritakoarekin bat:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua da bertako bigarren klausulan aipatutako obrak elkarlanean egiteko Uraren Euskal Agentziak eta Donostiako Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

BIGARRENA.- Gauzatu beharreko jarduketak.

Gauzatu beharreko jarduketak "Urumea ibaiaren gainean Astiñene zubia gauzatzeko Proiektua"n jasotakoak dira. Hurrengo klausuletan ezartzen da zer baldintza bete behar diren gauzatze horretan.

Obren helburua hau da: Astiñene zubia eraistea eta beste bat eraikitzea egungoa ordeztzeko.

HIRUGARRENA.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartu ditu bere gain:

- "Urumea ibaiaren gainean Astiñene zubia gauzatzeko Proiektua"n jasotako obren gauzatzea gainbegiratzea.
- Zubiari dagozkion proiektu guztien kostuaren erdia finantzatzea eta ordaintzea, bai eta egungo zubia eraisteko eta kentzeko eta zubi berria eraikitzeko obrak egiteko kostua ere, aldameneko bideekin behar bezala lotu eta elkartzeko obrak ere sartuta. Hori guztia obra horiek azterketa

TERCERO.- Que, una vez redactado el "Proyecto de ejecución del Puente Astiñene sobre el río Urumea" y disponiendo de presupuesto adecuado para ello, ambas partes proceden a formalizar un nuevo convenio para colaborar en la financiación y contratación de las obras definitivamente incluidas en el reiterado proyecto.

Todo ello con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto del Convenio.

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de San Sebastián se comprometen a colaborar en la ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda del presente convenio.

SEGUNDA.- Actuaciones a ejecutar.

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las recogidas en el "Proyecto de ejecución del Puente Astiñene sobre el río Urumea".

Las obras consisten en la construcción del nuevo puente de Astiñene en sustitución del actual, así como la demolición del actual.

TERCERA.- Compromisos de la Agencia Vasca del Agua.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

- Supervisar la ejecución de las obras del "Proyecto de ejecución del Puente Astiñene sobre el río Urumea".
- Financiar y abonar la cuantía equivalente al 50% de la totalidad de los proyectos del puente, así como el coste de demolición y retirada del puente actual y ejecución de las obras de construcción del nuevo puente de acuerdo con los criterios establecidos en los Estudios hidráulicos, en la hipótesis de que

hidraulikoetan ezarritako irizpideen arabera egin behar direla kontuan hartuta, eta oraingo zubia dagoen tokian kokatuko dela aurreikusita.

Hitzarmen hau dela eta Uraren Euskal Agentziak egingo duen ekarpenik handiena MILIOI BAT ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (1.794.586,49€) dira, hitzarmen honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Horretan sartuta daude 2019rako ordainketa-kreditu bat, 344.163,94 eurokoa, eta 2020rako konpromiso-kreditu bat, 1.450.422,55 eurokoa; biak Uraren Euskal Agentziaren aurrekontuaren kontura finantzatzeko dira.

LAUGARRENA.- Donostiako Udalaren konpromisoak.

Udalak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) Urumea ibaiaren gainean Astiñene zubia gauzatzeko Proiektua ekartzea, behar bezala onartua.

b) Obrak egiteko aldi baterako edo behin betiko behar diren lurak lortzea, bere kontura.

c) Obren gauzatzea kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatzea, bosgarren klausulan xedatutakoaren arabera.

d) Proiektuan jaso ez diren erasandako zerbitzuak berriz jartzea, eta kontratuz kanpoko lizentzia eta baimenak -hidraulikoak ere bai, behar izanez gero- eskuratzea; horretaz gain, hitzarmenaren xede diren jarduerak kontratatzeke eta gauzatzeko kontratuz kanpoko gainerako izapide administratiboak, aurretik egin beharrekoak, egitea.

e) Donostiako Udalak ordainduko du Uraren Euskal Agentziak ordaintzen ez duen zatia. Zati hori izango da, hain zuzen, proiektatu beharreko zubi berriak ekarriko duen gain-kostua, oraingo zubia ordezkatzeko hasiera batean aurreikusitakoaren aldean.

debiera situarse en el mismo emplazamiento que el actual, incluyendo su necesaria y correcta conexión y encuentro con el viario colindante.

El importe previsto como aportación máxima que compromete a la Agencia Vasca del Agua en virtud del presente convenio asciende a UN MILLÓN SETECIENTOS NOVENTA Y CUATRO MIL QUINIENTOS OCHENTA Y SEIS EUROS Y CUARENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (1.794.586,49€), IVA incluido, en los términos previstos en el anexo que acompaña al presente convenio, correspondientes a un crédito de pago para 2019 de 344.163,94 euros, y un crédito de compromiso para el 2020 de 1.450.422,55 euros que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia Vasca del Agua.

CUARTA.- Compromisos del Ayuntamiento de San Sebastián.

El Ayuntamiento se compromete a:

a) Aportar el Proyecto de ejecución del Puente Astiñene sobre el río Urumea, debidamente aprobado.

b) Obtener, a su cargo, los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras.

c) Contratar, dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las obras, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula quinta.

d) Reponer los servicios afectados no contemplados en el proyecto, así como obtener las licencias, autorizaciones -incluidas de ser necesario las hidráulicas- y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio.

e) Financiar y abonar el resto que no abone la Agencia Vasca del Agua, que se corresponderá con el sobrecoste que el nuevo puente a proyectar represente respecto del anteriormente previsto de sustitución actual.

"Astiñene zubia gauzatzeko Proiektua" esleitzeko zenbatekoa konprometituta dago Donostiako Udalaren Aurrekontuetan.

f) Obren kudeaketa eta mantentze-lan egokiak egitea –obrak Udalaren jabetzakoak izango dira-. Udalak hitzematzen du hemen ezarritako konpromisoa betetzeko aurrekontu-aurreikuspenak egingo dituela eta beharrezkoak diren gainerako neurriak hartuko dituela.

g) Azpiegitura hidraulikoen hustuketa-ahalmenari eusteko egokiak diren mantentze eta garbiketa lanak egitea aldezka.

BOSGARRENA.- Obren kontratazioa, zuzendaritza eta ikuskapena.

1.- Donostiako Udala, hitzarmen honetako 3.c) klausularekin bat, jarduketaren kontratazioaz, zuzendaritza eta ikuskapen teknikoaz arduratuko da.

2.- Jarduketei buruzko identifikazio-karteletan, iragarkietan eta edozein motatako seinaleetan, aditzera emango da Uraren Euskal Agentziak parte hartu duela obren finantzaketan.

3.- Zortzigarren klausulan araututako jarraipen-batzordean dituen ordezkarien bidez, Udalak Uraren Euskal Agentziari unean-unean informazioa eman beharko dio, eta hitzarmen hau betetzeak eragiten dituen izapide administratibo guztien garapenari eta gauzatzeari buruzko dokumentazioaren kopia aurkeztu.

Agentzia horrek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak agiriak eta informazioa eskatu ahal izango dituzte, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak, kontrolak eta fiskalizazioak egin ahal izango dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekarpenari erabilera egokia ematen zaiola eta **jarritako baldintzak** betetzen direla egiaztatzeko.

El importe correspondiente a la adjudicación del "Proyecto de ejecución del Puente de Astiñene" se encuentra comprometido en los Presupuestos del Ayuntamiento de San Sebastián.

f) Realizar una gestión y mantenimiento adecuados de las obras, que quedarán en propiedad municipal, comprometiéndose a adoptar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

g) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas.

QUINTA.- Contratación, dirección e inspección de las obras.

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián, conforme a la cláusula 3.c) del presente convenio, será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de las actuaciones.

2.- En los carteles identificativos, anuncios y cualquier clase de señalización referente a las actuaciones se hará constar la participación de la Agencia Vasca del Agua en la financiación de las obras.

3.- A través de sus representantes en la comisión de seguimiento, regulada en la cláusula octava, el Ayuntamiento deberá informar puntualmente a la Agencia Vasca del Agua y aportar a la misma copia de la documentación referente al desarrollo y ejecución de todos y cada uno de los trámites administrativos que ocasione el cumplimiento del presente convenio.

La citada Agencia y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas podrán solicitar la documentación e información y efectuar las inspecciones, controles y fiscalizaciones de cualquier naturaleza que estimen oportunos para la determinación del adecuado destino de la aportación de la Administración de la Comunidad Autónoma y del cumplimiento de las condiciones en que se otorga.

4. Obren harrera ekitaldira Uraren Euskal Agentziako teknikariak joango dira, obrak bukatuta, teknikoki egokiak direla fiskalizatzeko.

SEIGARRENA.- Finantzaketarekin zerikusia duten beste kontu batzuk.

Hemen zerrendatutakoek idatzizko baimena beharko dute, edo, bestela, hitzarmena aldatu beharko da, aurrez, betiere:

a) Onetsitako proiektuan zehaztutakoak osatzen dituzten obrak.

b) Oro har, Uraren Euskal Agentziak obrak finantzatzeko hartu duen konpromisoari eragiten dioten kontratuaren gaineko erabakiak, ondorio ekonomikoak dituztenak.

ZAZPIGARRENA.- Ekarpenen zertarakoa eta ordainketa.

1.- Uraren Euskal Agentziaren ekarpena hitzarmen honen xede diren obrak behar bezala egitearen ondorioz izaten den kostua finantzatzeko baizik ez da erabiliko. Beraz, ez dira haren kontura ordainduko kontratazio-organoari dagozkion kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoak, halakorik bada. Adibidez, zuinketa desagokiaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoak, lursailak eskura ez egotearen ondorio direnak eta ziurtagiriak berandu ordaintzeak sortutakoak, ez eta beste kontzeptu batzuk ere, hala nola finantza-kostuak, lurrak erosteko kostuak, etab.

2.- Hitzarmen hau sinatu eta gero ordainduko dira 344.163,94 euroak, Udalak Uraren Euskal Agentziari aurkeztuta ordura arte jasotako ziurtagiriak. Gainerako zatia, 1.794.586,49 euro osatu arte, ziurtagiriak jasotakoan ordainduko da.

3.- Donostiako Udalak ezin izango du, inola ere, kontratistei obra-ziurtagiriak ordaintzeko baldintza moduan jarri Agentziak jarri beharreko ekarpena aurrez transferitu izana. Aitzitik, epe egokietan egin

4.- Al acto de recepción de las obras asistirá personal técnico de la Agencia Vasca del Agua con el fin de fiscalizar la adecuación técnica de las obras una vez finalizadas.

SEXTA.- Otras cuestiones relacionadas con la financiación.

Requerirán previa autorización por escrito o, en su caso, la previa modificación del convenio:

a) Las obras accesorias o complementarias a las definidas en el proyecto aprobado.

b) En general, cualquier toma de decisión contractual con implicaciones económicas que afecte al compromiso financiero de la Agencia Vasca del Agua.

SÉPTIMA.- Destino y pago de las aportaciones.

1.- La aportación de la Agencia Vasca del Agua solo podrá destinarse a la financiación del coste derivado de la normal ejecución de las obras objeto del presente convenio. En consecuencia, no serán abonables con cargo a la misma aquellas cantidades que pudieren devengarse del incumplimiento de las obligaciones contractuales que incumben al órgano de contratación, entre las que se refieren las ocasionadas por un incorrecto replanteo, las derivadas de la falta de disponibilidad de los terrenos o las derivadas del tardío pago de las certificaciones, entre otras, ni tampoco otros conceptos diferentes tales como costes financieros, de adquisición de terrenos, etc.

2.- El pago del importe de los 344.163,94 euros se realizará tras la firma del presente convenio contra la presentación por parte del ayuntamiento a la Agencia Vasca del Agua de las certificaciones recibidas hasta la fecha. Y el restante importe hasta la cantidad total de 1.794.586,49 euros se irá abonando contra certificaciones recibidas.

3.- En ningún caso el Ayuntamiento de San Sebastián podrá condicionar el pago de certificaciones de obra a los contratistas a la transferencia previa de la aportación que

beharko dizkio ordainketak kontratistari, berandutzea saihesteko, eta, halakorik egin ezean, sor daitezkeen kalteen erantzule izango da.

ZORTZIGARRENA.- Jarduketan jarraipen-batzordea.

1.- Hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da, lau ordezkari, hau da, Uraren Euskal Agentziako bik eta Donostiako Udaleko beste bik osatua. Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek izendatuko dituzte ordezkariok, honako eginkizun hauek betetzeko:

Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala egiten direla bermatzeko jarraipena egitea, irizpideak eta moduak ezarri elkarri informazioa emate aldera eta elkarrekiko konpromisoak behar bezala betetze aldera.

b) Kasu bakoitzean egin beharreko izapideak azkar egitea eragozten duten oztopoak kentzen laguntzea.

c) Hitzarmen honen xede diren jarduketak betetzen direla bermatzeko informazioa ematea eta beharrezko neurriak proposatzea, batez ere, urteko kuotak egokitu behar badira eta zazpigarren klausulan jasotako kasuetan.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretazio eta gauzatze arazoak konpontzen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean den bitartean, alde bateko zein besteko ordezkariak proposatzen badu, batzordea bilduko da, jarduketak behar bezala eta behar den denboran egiteko beharrezkoa izanez gero. Bilerak egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma, kideen ahobatezko adostasuna izango da.

3.- Jarraipen-batzorderako berariaz aurreikusi ez diren kontu guztietarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeko Atariko Tituluko II. kapituluko 3.

corresponda a la Agencia, debiendo, por tanto, efectuar los pagos al contratista en los plazos adecuados para evitar la incursión en mora y siendo responsable, en caso de no hacerlo, de los perjuicios que puedan irrogarse.

OCTAVA.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y dos del Ayuntamiento San Sebastián, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula séptima.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quorum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015,

atalean ezarritako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

1.- Hitzarmen honek administrazio-izaera du. Interpretatzeko eta garatzeko orduan, administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioaren ordenamendu juridikoa bete behar da.

2.- Hitzarmen honetan edo hitzarmen hau gauzatzean interpretazio-arazorik sortuz gero, jarraipen-batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan adierazitakoaren arabera; hori ezinezkoa izanez gero, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.

1.- Hitzarmen honek ez dakar berekin parte hartzen duten aldeek beren eskumenei uko egitea, ez eta haiek aldatzea ere. Alde bakoitzak hitzarmen honetan hartutako konpromisoei atxikitako erantzukizunak bakarrik hartzen ditu bere gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen den momentutik izango ditu ondorioak, eta momentu horretatik bertatik behartuko ditu parte hartzen duten aldeak. Jarduketa gauzatzeko egindako kontratazioa likidatu eta ordaindu arte iraungo du. Hasiera batean, gehienez ere, lau urteko iraupena izango du, baina luzatu ahal izango da, aplikatzeko moduko legea beteta.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena iraungitzea.

1.- Bi arrazoi daude hitzarmen hau amaitzeko: aurreko klausulan aipatutako iraupena amaitu delako edo suntsiarazi delako.

2.- Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, konpromiso horiek zorrozki betetzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatu ahal izango du beste alderdiak.

de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

NOVENA.- Régimen e interpretación del Convenio.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

DÉCIMA.- Efectos y duración del Convenio.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la contratación de la actuación para su ejecución, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

UNDÉCIMA.- Extinción del Convenio.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio.

Eta ezarritakoaren arabera, eta ados daudela adierazteko, bildutakoek dokumentu hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

**URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA /
EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**DONOSTIAKO ALKATE-UDALBURUA /
EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE
SAN SEBASTIÁN**

ENEKO GOIA LASO